

azken portuko tabernan

garikoitz berasaluze

Andoni Basterretxea

«Disko bat atera nahi dut aurten»

Nortasun agiria

Mutrikun jaio zen, 1964ko azaroaren 21ean. Ikasketei dagokienez, hauxe esan digu: «Ez daukat graduaturik ere, Señorita Maribelen erruz. Zortzigarren mailara arte ikasle ona nintzen. Gero, ikastetxez aldatu nintzen eta Señorita Maribel ezagutu nuen, eta izor hadi». Arrantzale izan zen hiru urtez, eta Delirium Tremens musika taldeko abeslari izateak ezagun egin zuen Euskal Herrian. Gaur egun, tarteka, Goenkale-n ere agertzen da. Eta aurten, urte askoan isilik egon ondoren, disko bat ateratzeko asmoa du.

Mutrikun, Sugandila Buztan Beltza serigrafia tailerrean hitz egin dugu Andonirekin. Haren lantokian. Era guztietako kamisetak, kirol jertseak, txandalak, jaietako zapiak eta abarrak egiten ditu bertan, beste lankide batekin batera. Bertan ematen ditu eguneko ordu gehienak. Garagardoak erosten dituen taberna eta hamaiketakorako hornitzeko supermerkatua ere bi pausora ditu. Gustuko lana du, eta gustuko herrian, gainera. Ez da gaizki bizi.

Serigrafian hasi aurretik, ordea, izan zuen beste ogibiderik Andonik. Arrantzale izan zen hiru urtez. Gero, beste urtebetez zerbitzari aritu zen, eta, Delirium Tremens taldean abeslari zebilen bitartean, beste lanak ere

egiten zituen. Azken sei urteotan, berriaz, serigrafia lantegia du lantoki. «Zazpiak edo zazpi eta erdiak aldean jaikitzen naiz, tailerrera etortzen naiz, lana ordu bata arte, bazkaldu, tabernara joan, patxarana, porro bat, hiruretan berriro lanera, zazpiak edo zortziak aldean irten, tragotxo bat hartu, etxera joan, afaria prestatu eta ohera».

Tarteka, Goenkale-ra ere joaten de-

la gogoratu diogu. «Nire bizitzan anekdota bat da hori. Ez dut inolako interesik Goenkale-n agertzeko. Ni Mutrikuko antzerki taldean nabil, eta bertako kide bat Goenkale-ra joaten zen. Haren bidez hasi nintzen joaten ni ere. Joanaldi bakoitzeko honenbeste ordaintzen dute eta kito».

Goenkale-n agertzeak, ordea, badi-tu ondorioak ere: «Putada handiena

gero hori telebistan agertzen dela da. Supermerkatura joaten naiz hamaitaketa eroatera, eta hor hasten zaizkit atzo iluntzean ikusi nindutela telebistan eta abar».

Hala ere, Goenkale-k baino famatuago Delirium Tremens taldeak egin du Andoni. Orain, kalean zenbait

bat-batean

■ Musika talde bat?

Red Hot Chili Peppers.

■ Liburu bat?

Cien años de soledad.

■ Film bat?

Midnight express.

■ Jaki gustukoena?

Txibia erroak plantxan.

■ Zenbat diru

daramazu patrikan?

Mila pezeta eta zeozer.

■ Bizitzeko herri bat?

Mutriku.

■ Fikziozko pertsonaia gustukoena?

Pink Panther, nahikoa felizianoa delako.

■ Bizio bat?

Jode, pila bat. Aspaldian, sofán botata egotea.

■ Egungo euskal musika talde bat?

Su Ta Gar.

■ Zer izan nahi zenuen txikitari?

Itsasontzi bateko patroia.

■ Zer eskatzen diozu urte berriari?

Urteak aurrera doaz eta, beraz, osasuna.

haur Goenkale-ko abestia kantatzen hasten bazaizkio ere, Deliriumen itzala ikusten dute gehienek Andonirengan. Musikari esker, «taberna eta leku ugari» ezagutu dituela aitortu digu. Musikak, ordea, ez du aberastu. Loterian-edo mila milioi pezeta egokituz gero zer egingo lukeen galdetu diogu. «Lehenengo gauza, angelak erosi, amarekin afaltzeko. Gero, bilete bat hartuko nuke Kanarietara joateko. Kubara joango nintzateke, baina bisa ateratzen-eta denbora behar da. Azkenik, serigrafia lantegi bat jarriko nuke, lauzpabost laguni lana emateko moduan. Eta etxe bat egingo nuke mendian. Eta gastatu, noski. Gastatu. Seme-alabak konpon daitezela gero nahi duten bezala».

Amaitzeko, musika aldetik zertan dabilen jakin nahi izan dugu, eta pozteko erantzuna eman digu Andonik: «Aurten disko bat atera nahi dut, eta nire taldea osatu. Gainera, lehenengo aldiz esan nahi dut ofizialki baietz. Urtero esaten dut datorren urtean egingo dudala, baina elkarrizketetan, badaezpada ere, ezetz esaten dut. Oraingoan, ordea, baietzkoa esaten dizuet. Disko bat atera nahi dut. Hala ere, gure kontura ibiltzeko zerbait izango da. Gogoia dugunean gauzak hartu, kontzertu bat eman eta horrela. Ongi patsatzeko. Lotura handirik gabe».

infernuko sukaldetik



harkaitz cano

Funky Chicken euskotarra da. Urtezhahar gauetz, tradizioari ezin hutsik egin eta, amonaren etxean jan ohi dituen mahats aleentzat presaka aurkitu du ordezkioa: m&m's sobre bat erosi du Brooklynen, eta telefonoz bestaldeko kanpaikadak entzunez jan ditu txokolatezko mahats aleak, gauerdian, New Yorken arratsaldeko seiak direnean. Gaueko ordubatean lagunek Alde Zaharrean urteko lehenengo egunean hartzen duten tekilatxoak aurkitzen du faltan. Oso ondo nola jakin gabe, japoniar baten etxean dago

Funky Chicken

orain, *sushia* dastatuz. DJ lanak egiten dituen enteradilloak Kool and the Gang jarri du toketan eta hor hasi dira japoniarrek Yushio Travolta bailiran. Guztiak beltzez jantzita doazela ohartzen da Funky Chicken. «Jakín izan banu ez nituzkeen bota hauek ekarriko, Adarra mendira noala ematen du-eta». Baina dantzan hasi da Funky Chicken ere.

Kandelen artetik beltzaran eder bat atera da eta esan du: «Oh, look at this, look at the Funky Chicken!». Funky Chickenek ez zuen oraindik bere izaera funkyaren kontzientziarik, oilaskoarena imajina bazezakeen ere.

Gauerdia jotzean dela, foru hispanoak bere lobby izaera agerian uzten du, japoniarrei ere hamabina mahats ale helaraziz. Kalera doaz denak. Yushio Travoltak zarama poltsen artean aurkituriko pertxa zilarreztatuta batekin hamabi kanpaikada kosmiko imajinarioak markatzen ditu. Funky Chicken pozik doa orain, urteberria birritan ospaturik. Horizontean Adarra mendia bilatzen saiatzen da, elkarri hitz egiten ez dioten bi ahizpa biki omen diren etxeorrazten artetik.

NY 99-01-06